



## DEKANOA

- Fakultateak bere egitura finkatu du -

**2**016ko urtarilaren 5ean, duela ia urtebete, Ekonomia eta Enpresa Fakultatea joia zen, UPV/EHU lehendik zeuden lau zentro hauek bateratuta: Bilboko, Donostia eta Gasteizko enpresa ikasketen eskolak eta Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea.

Aldi batez behin-behineko organoekin funtzionatu ostean, azaroaren 24an gure Fakultateko oinarritzko gobernu organoak aukeratzeko hauteskundeak egin ziren, UPV/EHUko errektorea aukeratzeko hauteskudearekin batera. Alde batetik, Fakultateko Batzarra eratu zen, eta, bestetik, Arabako, Gipuzkoako eta Elkanoko ataletako batzarrak eta Egoitza Batzordea.

Horrela, gure Ikastegiaren egitura egonkortu da, eta aurki, dekanoa hautatzen denean, Fakultateko Batzarrak onespena eman-go du. Horrekin garai berri bat hasiko da, eta Fakultate berriaren arauditiki eratorritako organo guztiak bete-betean jardungo dute. Hori bai, aldi batez behin-behineko antolamendu egiturekin funtzionatzeak ez du inolaz ere apaldu gure Ikastegiaren irakuntzako, ikerkuntzako eta gizarte jardunaren eritimoa, eta horren erakusgarri garbia dira Buletin honen edukia osatzen duten gaiak.

Ildo horretatik, zorianak eman nahi dizkiogu, batetik, gure lankide Nagore Inberri, Banco Sabadell Fundazioaren Ekonomiako Ikerkuntzaren Saria lortu duelako, eta, bestetik, Amaia Urkiolari, Jesús María de Leizaola Saria irabazi duelako.


Ekainean, beste urte batez, *Developments in Economic Theory and Policy* biltzarra antolatu zen gure Fakultatean Cambridgeko Unibertsitatearekin batera, eta mundu osoko ikertzaile ugariak parte hartu zuten.

Horrez gain, Euskal Herriko Ekonomiako Olinpiadak jokatu ziren beste behin, Batxilergoko ikasleei gure zientziarako interesa pizteko asmoz, eta inoiz baino jende gehiagok parte hartu zuen. Bestalde, azaroaren 25ean, Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna izaki, unibertsitateko kolektibo guztiak gaitz ikaragarri horren inguruan sensibilizatzeko hainbat jarduerak egin ziren gure Ikastegian. Egun horretan bertan, gure Fakultateko egresatu Francisco Luzón etorri zen bisitan. Luzónek lan ibilbide aparta egin du bankuen alorrean, eta orain AEA gaixotasun latzaren kontra dabil borrokan; bada, gure Fakultatean aurkeztu nahi izan zuen AEAr aurre egiteko sortu duen fundazioa.

Last, but not least, zorianak eman nahi dizkiogu gure lankide José Ignacio Martínez Churiaqueri, 2016ko Ekonomia Saria eman diotelako. Martínez Churiaque irakaslea Fakultateko historiaren parte da meitu propioengatik, Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultateko dekanoa izana baita. Beste hainbat lanetan ere aritu da, hala UPV/EHU bertan nola akademiatik kanpoko esparruan. Baina, beste ezeren gainetik, ikasleek hainbeste maitate duten irakasle bikain hori nabarmendu nahiko nuke, zeina, zorianez, geurekin baitaukagu berria.

Gai interesgarri horiek guztiak bildu ditugu Buletinaren zenbaki berri honetan. Ea gogoko dituzuen.

Arturo Rodríguez



José Ignacio Martínez Churiaque, UPV/EHU Euskal Herriko Unibertsitateko Finantza Ekonomiaren eta Kontabilitatearen arloko katedradunak eta Finantza Ekonomia I Saileko kideak, 2016ko Ekonomia Saria lortu du. Ekonomia Euskal Elkargoak ematen du sari hori, ekonomiaren, enpresa kudeaketaren eta gizartearen garapenean esku hartzen duten pertsonak jendarean omentzeko, eta sariaren bidez, oinarrietan adierazten den moduan, hautetsiaren honako ezaugarri hauek azpimarratzen dira besteak beste: "talentua – ekonomiari egiten zaion ekarpena eta ikerketaren arloko kudeaketa edo lana – balioak – gizartearen onura –

elkargoari egiten zaion ekarpena – jarrera – lan ibilbidea – eskuragarria – erreferentea – ekintzailetasunaren sustapena – eskarmentua – lidergoa – proiektuak – ezagutza – eskuabaltasuna – konpromisoa – zintotasuna – aurrerabidea – sormena – ahalegina – aitortzea – etika [...]". Sariduna aukeratzeko, bi faseko sistema parte hartzaile bati jarraitzen zaio, eta Ekonomia Euskal Elkargoko ekonomista guztiak parte har dezakete azken bozketan.

José Ignacio Martínez Churiaque irakaslea beti egon da oso lotuta Euskal Herriko Unibertsitatearekin eta, zehazkiago, Ekonomia eta En-

## “Eskarmentu handia ezagutza zabaltzen” Ignacio Churiaque Premio Ekonomista Saria 2016

presa Fakultatearekin (garai bateko Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatearekin). Kargu hauek bete ditu: Finantza Ekonomia I Saileko zuzendari, EHUko idazkari nagusi, eta Ekonomia eta Enpresa Fakultateko dekanorde eta dekanoa.

Halaber, Herri Kontuen Euskal Epaitegi buru izan da 6 urtez.

Arlo instituzionalari dagokionez, Ekonomia Euskal Elkargoko dekanoa izan da, Espainiako Ekonomia Euskal Elkargoaren Kontseilu Nagusiko Ekonomia Auditorearen Erregistro (REA) Prestakuntza Batzordeko buru, Ekonomia Euskal Elkargoaren Nuevas de Economía y Economistas aldizkariaren zuzendari, ICACen Kontularitzako Kontsulta Batzordeko kide... Laburbilduz, lan ibilbide zabal hori guztia kontuan harturik, ondo merezitako saria eraman du Martínezek.

José Manuel Rodríguez Molinuevo

## Fakultatea emakumeenganako indarkeriaren kontra mobilizatu da

Bigarren urtez jarraian, Ikastegiko Berdintasun Batzordeak Ekonomia eta Enpresa Fakultateko egoitzako eta ataletako unibertsitate komunitateari dei egin zion emakumeen aurkako indarkeria ezabatzeko borrokan bat egitera. "Tratu txarrei iskin egiteak konplize bihurtzen zaitu" lelopean, Fakultateko pertsona guztiak galdera honi erantzuteko eskatu zitzaizkien: Zer egin dezakegu genero indarkeria amaitzeko? Horretarako, iritzi guneak jarri ziren Fakultateko hall nagusian eta Miguel Ángel Blanco eraikinean, nahi zuen orok iritzia eman zezan.

Aurten askoz ere jende gehiagok parte hartu du, eta Batzordeak zorianak eman nahi ditu horretatik, garrantzitsua delako gogoraraztea ezinbestekoa dugula emakumeen kontrako indarkeria geldiarazten esku hartzea. Iruzkinetan bi kontu aipatu ziren batez ere: alde batetik, berdintasunean oinarrituta heztearen garrantzia, eta, bestetik, indarkeria jasaten dutenak modu pertsonal eta konprometituan babesteko beharra.

Halaber, komunitateari A25ean aktiboki parte hartzeko gonbidapena

egin zitzaion, eta posta elektronikoz informazioa eman zen etxeko indarkeria eta genero indarkeria geldiarazteko baliabideei eta zerbitzuei buruz.



## Francisco Luzónen bisita

Azaroaren 25ean, Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Egunarekin bat egiteaz gain, aparteko bisitari bat etorri zitzaigun Sarrikoko gure Fakultatera: Francisco Luzón.

Gure Fakultatean atera zuen titulua, 1972an, nota bikainak zituela-eta ikasketak unibertsitateko beka batekin egin ondoren. Gero, Francisco Luzón Bilbon hasi zen lanean, garai bateko Banco de Vizcayan; han, bere ahaleginari eta ikuspegiari esker, erakunde-ko postuetan gora eginez joan zen, eta, besteak beste, lan handia egin zuen zenbait unitate eta filial eraldatzeko. 1988an, Luzónen partaidetza aktiboari esker, Banco de Vizcaya Banco de Bilbaorekin bat egin zuen. Urte horren amaiera aldera, Banco Exterior de Españako presidente izendatu zuten. Hala, Luzónek erakunde hura berregituratzeko eta berritzeko lana zuzendu zuen, eta beste finantza erakunde publikoekin bateratzeko prozesua gidatu. Hortik, Grupo Bancario Corporación Bancaria de España "Argentaria" sortu zen; Luzón hango aurreneko presidentea izan zen, eta hango pribatizazio prozesua gidatu zuen.

1996aren bukaeran, Banco Santanderrren hasi zen presidenteari atxikitako aholkulari eta zuzendari nagusi gisa. Erakunde hori eraldatzen lagundu

zuen, eta Banco Central Hispanorekin bat egiteko eta Latinoamerikan zabalatzeko prozesua sustatu. Horrez gain, akademiaren eta unibertsitatearen munduarekin harremanetan ibili zen, Unibersia sarearen bitartez.

Lan ibilbide guztian, Francisco Luzón buru-belarri aritu da hezkuntzaren eta

ikerkuntzaren aldeko fundazio eta programetan, gizartearen garapenari bide eman nahian.

2013an erretiroa hartu zuen Banco Santanderretik, eta, horren ostean, bete-betean jardun zuen unibertsitateko munduan. Alabaina, erretiroa hartu eta hilabete gutxi batzuetara, alboko eskle-

rosi amiotrofikoaren (ELA) sintomak izaten hasi zen. ELA gaixotasun paralizatzaile progresiboa da, bizirik irauteko itxaropen oso laburra, eta adituek oraindik oso gutxi dakite horri buruz.

Francisco Luzónek, beti izan duen borrokalari sena atera, eta gaixotasunari buru egitea erabaki zuen. Horrela, gaixotasuna borrokatzeko fundazio bat sortu zuen, eta fundazio horretan jarri du bere ondasunaren zati handi bat, bere giza eta harreman kapital osoa eta bere ahalegin erabatekoa.

Bere fundazioaren jarduna tokiko hedabide bateko elkarrizketa baten bidez EAEen ezagutarazteko, gure Fakultatea aukeratu zuen, bere alma mater-a. Izan ere, maitasun berezia dio Fakultate honi, egin zuen bisita hunkigarrian hainbatetan esan zenez.

Artikulu hau idazten ari ginela, albiste on bat jaso dugu: Francisco Luzónek Alfontso X.a Jakitunaren Ordenako Gurutze Handia jaso du.

Francisco maitea, eskerrik asko zure maitasun eta adore bikainagatik, eta zorionak, bihotzez, merezitako sari horrengatik.

Arturo Rodríguez



## Amaia Urkiola, Jesús María Leizalola Sariaren irabazlea

Amaia Urkiolak, Ekonomia Aplikatua II Saileko irakaslea, 2016ko Jesús María Leizaola Saria irabazi du "La redistribución entre Territorios Históricos dentro del sector público vasco" lanagatik.

Amaia Urkiolak Euskal Sektore Publikoko baliabideak banatzeko egungo ereduaren ekarri duen lurralde arteko antolamendu berria aztertu du. Auzi hori funtsezkoa da gaur egungo ereduaren ulertzeko eta ebaluatzeko, eta orain arte ez da aztertu lan honek bezain zorrotz eta sakon. Urkiola irakaslea diru sarrerak eta gastuak lurraldeei egozteko teknikak zabaldu eta garatu ditu, eta EAEan aplikatu. Hala, lurralde bakoitzeko biztanleek ordaintzen dituzten zergak eta jasotzen dituzten irabaziaz kuantifikatu ditu, eta lurraldeen arteko saldoaren alde hartu du kontuan. Eraitza irmoak lortzeko, lana egoera eta leku desberdinak aztertuz egin du.

Urkiolaren lanak erakusten du lurraldeen arteko berrantolamendua mugatua dela; izan ere, egoera edozein dela ere, lurraldeen ekarpen edo irabazi

garbiak ez dira haien BPGd-aren % 1era iristen. Hala ere, analisiak banaketa berria egiteko zenbait jarraibide sendo proposatzen ditu. Gipuzkoa, kasurako, Euskal Sektore Publikoaren zergapeko garbia da, eta Bizkaia, berriz, beti onuradun garbia da; Arabaren egoera, azkenik, gorabeheratsua da.

Urkiola irakaslearen lanak maila akademiko bikaina du, eta, horrez gain, eragin handia du Euskal Sektore Publikoaren errealitatean. Hori dela eta, funtzio akademikoa zein soziala betetzen ditu. Urkiolak bere tesian oinarrituta osatu du lana; tesia Ignacio Zubiri katedradunak zuzendu zuen, eta Mari Carmen Gallastegui katedraduna buru zuen epaimahai batek Bikain Cum Laude kalifikazioa eman zion aho batez. Epaimahaiko kide ziren, era berean, Oviedoko Unibertsitateko katedradun Carlos Monasterio eta Nafarroako Unibertsitateko katedradun Pedro Pascual.

Ignacio Zubiri



# Nagore Iriberrri ikertzaileak "Fundación Banco Sabadell a la investigación en Economía" saria jaso du



Nagore Iriberrri Etxebeste Ekonomiaren Zientzietan eta Komunikazioaren Zientzietan lizentziatu zen 1999. eta 2000. urtean, hurrenez hurren, Euskal Herriko Unibertsitatean. Gero, 2006an, Ekonomiako doktoregoa atera zuen Kaliforniako Unibertsitatean, San Diegon. Pompeu Fabra Unibertsitateko irakasle izan zen 2006 eta 2012 artean, eta 2012an Euskal Herriko Unibertsitatean hasi zen, Ikerbasque programari esker.

2012az geroztik, gure fakultatean dabil Ikerbasque ikerketako irakasle gisa. Egun, hiru ikerketa lerro lantzen ditu: alde batetik, aurretiko

esperientziak ikasteko aukerarik izan ez duten norbanakoek jokabide estrategikoa ikertzen du; bestetik, pertsonek besteen emaitzen berri jakitean nola jokatzaren aztertzen du; eta, azkenik, jokabidearen genero desberdintasunak ere jorratzen ditu. Banco Sabadell Fundazioaren Ekonomia Ikerkuntzaren XV. Sariketako epaimahaia Nagoreri eman dio 2016ko saria, ekonomia esperimentalaren alorrean eta gizarte jokabidearen ikerketari aplikaturiko jolasen teoriaren esparruan egindako ikerketa bikainagatik.

*Elena Iñarra García*

## Ekonomia eta Enpresa Fakultateko hauteskundeak

Azaroaren 24an, Ekonomia eta Enpresa Fakultatearen Arauditik eratorritako gobernu organoak aukeratzeko hauteskundeak egin ziren, UPV/EHUko errektorea aukeratzeko hauteskundeekin batera. Zehazki, Fakultateko Batzarra, Arabako, Gipuzkoako eta Elkanoko ataletako batzarrak eta Egoitza Batzordea eratu ziren.

Horrekin, Ikastegi berriaren gobernu egitura finkatu da. Ikastegi berria 2016ko urtarrilaren 5ean sortu zen, lehenik zeuden lau ikastegi elkartuta –enpresa ikasketen lau eskola eta Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea–, eta, ordutik orain arte, behin-behineko organoak aritu izan dira zuzendaritzan eta gobernuan.

Fakultateko Batzarra Ikastegiko gobernu organo gorena da, eta hainbat kolektibotako 50 pertsona hautetsik osatzen dute: 32 batzarkide irakasle eta ikertzaile iraunkorrak dira; bi batzarkide, bestalde, gainerako irakasle eta ikertzaileak; sei batzarkide, berriz, AZPkoak; eta hamar batzarkide, azkenik, ikasleak. Hauteskundeotan, AZPkoek eta ikasleek adostasunezko hautagai zerrenda bana aurkeztu zuten; horrenbestez, kolektibo bakoitzari dagozkion 16 postuak hautagai zerrenda horiekin bete dira. Gainerako irakasle eta ikertzaileek, berriz, hiru hautagai zerrenda aurkeztu zituzten, eta zerrendetako bik lortu zituzten ordezkariak. Azkenik, irakasle eta ikertzaile iraunkorrek hamar hautagai ze-

renda aurkeztu zituzten, eta zerrenda guztiek lortu dute ordezkari, neurri handiagoan edo txikiagoan.

Uste dugu hauteskundearen emaitzak ondo erakusten duela gure Ikastegian askotariko sentsibilitateak ditugula eta, beraz, aberastasun handia dugula. Hemendik aurrera, aniztasun hori oinarri hartuta, Batzarrak Fakultate bikain honek etorkizunean izango dituen erronka handiei aurre egin behar die.

Hurrengo erronka handietako beste bat dekanoa aukeratzeko hauteskundeak da. Izan ere, dekanoa hautatzean Fakultateko Zuzendaritza osatuko da, eta behin betiko martxan jarriko da Ikastegi berriaren antolamendua.

Behin-behineko dekanoa naizen aldetik eta nire agintaldia laster bukatuko denez, hasteko eta behin, adierazi nahi dut niretzat plazer eta ohore handia izan dela lehenik Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultateko dekanoa izatea eta ondoren Ekonomia eta Enpresa Fakultatekoa. Bigarrenik, eskerrak eman nahi dizkiet Ikastegiko gobernuari eta zuzendaritzari lagundu dieten pertsona guztiei, hala Fakultateko batzarretako eta ataletako batzarretako kideei nola Fakultateko eta ataletako zuzendaritza kideei. Izan ere, nekez eta isilpean lan egin dute, euren obligazio zorrotzetatik harago, eta haiek gabe ezin izango genuke hau guztia lortu. Eskerrik asko denoi.

*Arturo Rodríguez*





## **113th International Conference Developments in Economic Theory and Policy**

### **Association for Social Economics elkartearen udako eskola**

2016ko ekainaren 23an eta 24an, International Developments in Economic Theory and Policy biltzarra egin zen Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Ekonomia eta Enpresa Fakultatean ([www.conferencedevelopments.com](http://www.conferencedevelopments.com)). UPV/EHUko Ekonomia Aplikatua V Sailak antolatu ohi du biltzarra, Cambridge Centre for Economic and Public Policies zentroarekin eta Cambridgeko Unibertsitateko Land Economy Sailarekin batera, eta 2004az geroztik urtero egin da gure Fakultatean.

Biltzarrean Espainiako zein mundu osoko ikertzaile ugari parte hartu zuten; zehazki, 29 herrialdeko 130 ikertzailetik gora batu ziren, horietatik herenak atzerriko unibertsitateetakoak eta ikerketa erakunde eta zentroetakoak.

Biltzar horretan ohikoak diren saioez gain, beste lau saio paralelo egin ziren, non master eta doktoregoko ikasleek esku artean dituzten ikerketak aurkeztu baitzituzten. Beste bi saio paralelo ere egin ziren, ekonomiaren eta enpresaren irakuntzaren inguruko esperientzia eta jarduera berritzaileak aurkezteko.

Biltzarrean, gainera, hizlari gonbidatuek bi saio berezi eman zituzten: alde batetik, finantza liberalizazioari buruzko saioa (Espainiako, Estatu Batuetako eta Erresuma Batuko hizlarietako parte hartu zuten) eta etxebizitzaren gaiari buruzkoa (Austriako, Espainiako eta Erresuma Batuko hizlarietako parte hartu zuten). Bestalde, hiru irakasle hitzaldi bana eman zuten osoko saioetan: Fundação Getúlio Vargaseko Luiz Carlos Bresser-Pereira irakasleak garapen ekonomikoaren makroeko-

nomia berriari buruzko hitzaldia eman zuen; Rotterdamgo Erasmus Universityko Irene van Staveren irakasleak, berriz, Herbehereetako finantza sistemari eta hango finantza krisiari buruz hitz egin zuen; eta Bangor Universityko Santiago Carbó-Valverde irakasleak, azkenik, banka eta finantza digitalizazioa izan zituen hizpide.

Biltzarrekin lotuta, ekainaren 22an eta 23an ASE Association for Social Economics elkartearen

udako eskola egin zen gradu ardotan, ASEk eta UPV/EHUko Ekonomia Aplikatua V Sailak antolatuta. Udako eskola horretan, bada, ASEko zortzi ikertzaile alemaniar, herbeheretar, italiar, mexikar, portugaldar eta britainiarrek ekonomia sozialari buruzko hainbat ikastaro eta mintegi eman zituzten udako eskolan dabiltzan 13 herrialdeko 30 ikasleri.

Udako eskolaren eta nazioarteko biltzarren arteko antolakuntza bateratuari esker, ekitaldi biak koordinazio ezin hobearrekin egin ahal izan ziren, eta eskolako irakasle eta ikasle gehienek biltzarrean aktiboki parte hartu zuten.

Jakinarazi nahi dizuegu 2017ko ekainaren 29an eta 30ean XIV. Economic Theory and Policy biltzarra egingo dela berriro Ekonomia eta Enpresa Fakultatean ([www.conferencedevelopments.com](http://www.conferencedevelopments.com)).

Jesús Ferreiro (UPV/EHUko Ekonomia Aplikatua Saila)

*Jesús Ferreiro (Departamento Economía Aplicada V UPV/EHU)*

